



Amaia Garciak jaitsiera egiteko eta Ama Birjinari zapi beltza kentzeko kortsearekin eta sokarekin martxoaren 17an etxean egin zituen probak. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Berri oneko jaitsiera Tuteran

Tuterako aingeruaren jaitsieran lehenengoz neska izango da aingerua, eta haren egitekoa urtero egin ohi den bezala 'zerutik' jaitsi eta Ama Birjinari zapi beltza kentzea izango da.

**NAIARA ARTEAGA -
IRENE ARRIZURIETA**
Tutera

Amaia Garcia da gaur goizeko bederatzietako Tuterako aingeru jaitsieran parte hartuko duen haurraren izena. 1663an Tuterako Erlojuaren etxetik plazara zintzilik jaisteko ohiturarekin hasi zirenetik, aingerua lehen aldiz neska izango da. Hori gertatzeari bide eman diona Tuterako udaletxeak 2005ean onartutako mozioa da. Horren arabera, 2007tik aurrera jaitsieran parte hartuko duena mutila edo neska izan daiteke.

Aingeruaren jaitsiera Tuterako Aste Santuko gainontzeko antze-penetatik ezberdina da. Kristok nekaldian pasatako sufrimendua- ren ondorengo egoera irudikatzen du: aingeruak, kasu honetan Amaia Garciak, Ama Birjinari semea hil izanagatik daraman zapi beltza kenduko dio, eta semea berpiztu zaion berria emango.

Horretarako, zerua irudikatzen duen pabiloia ezarriko dute Erlojuaren etxearen bigarren pisuan, eta Amaia hortik jaitsiko da, plazaren erdialdean egongo den Ama Birjinari zapi beltza kentzera. Ondoren, aingerua Erlojuaren etxera igoko dute eta gero prozesioan jarriko da, San Jorgeko Katedralean egingo den mezara joateko.

Iaz 32 haurrek eman zuten izena, eta horietatik bi aukeratu zituzten: ordezkoa eta aingerua

Izaera aldetik aingeruak ezaugarri batzuk bete behar ditu: kikiltzen ez dena, alai eta irribarretsua izatea



Aingeruak plazaren erdian dagoen Ama Birjinari zapia kentzen dio, kristo berpiztu dela jakinarazteko. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Aurtengo aingeruaren aukeraketa iaz hasi zen, eta Gabonetatik gaur arte prestaketa guztiak egin dituzte Amaia Garciak eta bere familiak: jantzita eramango dituen galtzak, soinekoa, kordioa, sandaliak eta koroa ondo gelditzen zaizkiola ziurtatu, eta airean egoteko behar dituen kortsea eta sokarekin probak egin dituzte, airean dagoenean arazorik izan ez dezan.

Amaia aingeru hautatzeko, gurasoek arduradunei umearen datuak eman zizkioten joan den urtean. Gauza bera egin zuten gainontzeko gurasoek, eta arduradunek hasiera eman zioten hautaketa prozesuari. Iaz 32 haurrek eman zuten izena, eta horietatik bi aukeratu zituzten: ordezkoa eta aingerua. Ordezkoa Diego Hernandez izango da: Amaiak ezin balu jaitsiera egin, bera izango litzateke aingerua, eta, bestela, berak egingo du 2009ko aingeruaren jaitsiera.

Aingerua aukeratzean, arduradunek ezinbestekotzat jotzen dute gurasoek ez ezik, haurrak ere aingeru jaitsiera egiteko gogoia izatea. Gainera, aingerua airean mantentzen duten kortsea eta soka ondo gelditu behar zaizkio. Bestalde, izaera aldetik ezaugarri batzuk bete behar ditu: kikiltzen ez dena, alai eta irribarretsua izatea, plazan dagoen jendetzaren aurrera atera beharko baitu.

ALDAKETAK HISTORIAN ZEHAZ. Aingeruaren jaitsiera urte askotako tradizioa da Tuteran. 1663an Erlojuaren etxetik jaisten hasi aurretik ere bazegoen, baina aingeru bakarra izan ordez talde bat joaten zen Ama Birjinari zapi beltza kentzera, eta oinez egiten zuten bidea. Umeak normalean pobreak ziren, umezurtegiak askotan. Gero, gurasoek izena emandakoan artean aukeratzeko hasi ziren.

Ama Birjinak ere aldaketak izan ditu: irudia lehen plaza erdian geldi egoten zen. Aingeruaren jaitsiera hasi zenetik, aldiz, jaitsiera bidea egiten du plaza erdialdera, aingeruarekin elkartzeko.

Itxurari dagokionez, aingeruak ere aldaketak izan ditu: lehen haurrak ileorde luzea erabiltzen zuen, eta gaur egun ez, umeak bere ilea luzatzen uzten baitu. Gainera, lehen haurrak aingeruaren jaitsieran Ama Birjinari ahots normalean esaten zion, eta orain deiadarka esaten du: «Alai zaitez, Maria, zure semea berpiztu da eta!».